

## AGUR TXOMIN AITARI

Danok ondo baiño obeto dakigu egunen baten il bear izango doguna. Biar zein urte batzuk barru. Ori eta guzti be, ez dogu orregaz konturatu egin gura. Eta eltzen jakunean, bai norberari zein senide naiz adiskideei orduan geureganatzen dogu eriotzaren benetako esangurea.

Ori jazo jatan niri, Iakakortaxarena tar Txomin Aitaren eriotzaren barri emon eustenean. Sentipen illun eta mingotsa, baiña nai-ta naiez onartu bearrekoa dana.

Zer esan neiken Txomin Aitari buruz? Egia esatekotan, Txomin Aita zanagaz birritan baiño ez nintzan izan. Baiña, naikoa izan jatazan aukera bi orreik bere kristautasun zintzoa eta euskerearenganako maitasuna igarri eta argi ikusi al izateko.

Gorabera asko izan zituan bere bizitzan. Batez be, Españako guda anker ortan. Iltekotan ibilli zan eta. Orren ostean, atzerrira joan jakun Txomin Aita eta berrogeta bost urte igaro ebazan Mones Cazon izeneko erritxoan. Argentinan. Urte guzti areitan, Euskalerritik ain urrin egon arren, ez eban iñoz bere euskal sen sakona galdu. Alderantziz. baiño.

Argentinako erri aretan bizi zala, eten barik eta kementsu ekin eutsan geure jakintza eta biziera zabaltzeari. Bai euskera arloan eta bai bertan bizi ziran euskaldunen alde.

Euskera eroian bere biotzean gure Txomin Aitak. Beti. Lan bikaiñak egin zituan euskerearen mesedean. Eta adibide legez or doguz, alde batetik "Martin Fierro" lana "Matxin Burdin" euskeratuta. Eta bestetik, Erlezaintzari buruz egiñiko lan erraldoi ori. Mones Cazon erria ospetsu egin ebana. Eta beste lan asko egin ebazan geure mintzaera ederrez.

Bestetik. Argentinan euskaldun asko bizi ziran. Eta gure Txomin Aitak eurei laguntzearren, Euskal Etxeak sortzen lagundu eban eta gaur egun Euskal Etxe batzuk aurkitzen doguz errialde ortik zear.

Ikusten dogun lez, urrin ibilli, bai; baiña bere Euskalerrri maitea aitzu barik. Ori, ezelan be, ez!

Beste aldetik be, bere kristautasun aundia aitatu bear. Monez Cazon izeneko erritxo artan egindakoa ez da gauza gitxi. Bertako bizilagunen alde gauza asko eta onak egin zitum gure berastegitarrak. Ez da arritzekoa. beraz, bertakoak Txomin Aita biotzean eroatea. Maitasun utsa zan-eta.

Eta, azkenez, egun batean, itzuli jakun bere jaioterria dan Berastegira. Ez pentsatu, baiña, atsedan billa etorri zanik. Ezelan be ez!

Bere izakerari zintzo izanez, euskerearen alde jarraitu eban lanean. Bai euskal liburuak argitalduten, bai erderatik euskerara lan ugari itzultzen edo-ta diru asko emoten euskerearen onerako.

Gogoratzen dot nik, igazko Gabonillan bere Berastegiko etxera joan nintzanean zelango abegi edo arrera bikaiña egin eustan. Zelako adorez esaten eustan euskerearen alde lan egiteko. Askok maitatzen eban euskera. Eta ori dala-ta, kezka aundiz ikusten eban gaur egun gure izkuntzak daroan bidea.

Azkenez. joan dan Epailleko 25an, gaixoaldi batek jota. beste mundura joan jakun euskaldun eta kristau zintzo eta neka-eziñ au.

Bere eriotzagaz, bera lako gizon jakintsu asko bear dauzan gure euskereak galera aundi bat izan dau, zalantza barik.

Bitartean, bera ezagutzeko zoria izan genduanok, jarraipena emon egin bear dautsagu bere elburuari: Euskera. ERRI-EUSKERA, aberastu eta zabaltzea Euskal-Errian zear.

Orixe izango litzake, izan be, gure Txomin Aitari egin giñeion oparirik onena.

Ainbat eta ainbat urtetan lanean jo-ta-ke ibilli ostean eldu jako atsedan-ordua. Ondo merezia, benetan.

Goian bego, betiko zorionean. Eta Egun Aundi-rarte.

MALAX-ETXEBARRIA'TAR JON